



GARRASIA
Edvard Munch (1893)

Garrasia (norvegieraz, **Skrik**) Edvard Munch-ek (1863-1944) egindako lau koadroren izenburua da. Bertsio famatuena, 1883an osatua, Norvegiako Galeria Nazionalean dago.



GAIA

Koadroaren lehenengo planoan pertsona bat ikus dezakegu, egoera guztiz larrian dagoelako itxurarekin. Ingurua aztertuta (batere definitu gabeko itsasertza eta perspektiba azeleratua), ondoriozta daiteke autorearen asmoa ez zela izan pertsonaiari marko errealista bat ematea; kontrara, haren jarrera etsia eta tragikoa indartu nahi izan zuela.

Esan liteke, beraz, sentimendu estugarria adieraztea bera dela artelan honen gaia.

TEKNIKA

Oihal gaineko olio-pintura, kolorearen aplikazio bortitzarekin.

KONPOSIZIOA

Irudi nagusia lehenengo planoan dago, zentratuta. Hala ere, bai barandak, bai atzealdean ageri diren kurbek (eta pertsonaiaren jarrera ondulatuak ere bai), dinamismo indartsua ematen diote eszena osoari.

LERROAK

Kontrajartze erabatekoa dago ezkerreko lerro zuzenen (barandako diagonalak) eta eskuinaldeko marra kurbatuen artean. Kontraste horrek nabarmen dinamizatzen du konposizioa, ikuslearen begia oihal osoaren gainean etengabe mugitzera behartzen baitu.





FIGURAK

Lehenengo planoan ageri den irudia (batez ere) guztiz desitxuratuta dago, kurba ugariren bitartez; hau da, ez da silueta definitu bat: sugarren antza hartzen du. Eta irudia aztertuta, ikus daiteke inongo xehetasunik gabea dela, egileak guztiz eskematikoki pintatu baititu bai aurpegia, bai eskuak.

Artelan honetan kontrajartze nabarmena dago kolore beroen eta hotzen artean; alegia, kontrastea sortzen dute elkarrekin. Batzuek zein besteez ez dute inongo loturarik errealitatearekin: guztiz antinaturalistak dira.

ARGIA

Argia ere antinaturalista da, foku zehatzik gabea. Ez da erabili argi-ilun teknirik.



PERSPEKTIBA

Diagonalei eta lerro ondulatuei esker eta figuren neurri desberdinak direla eta, espazio-sentsazio bortitz bat nabari da, lehenengo planotik atzealdera arte inongo etenik gabe heltzen garelarik, modu jarraituan. Hala, lotuta geratzen dira figura nagusia eta hondoa, eta, mugimendu arin batekin toki batetik bestera garamatzatela, eszena ikusteko orduan halako sosegurik eza sortzen zaigu (perspektiba azeleratua).

1994ko otsailaren 12an, lapurtu egin zuten koadroa Osloko Galeria Nazionaletik. Lapurrek egun argiz egin zuten ekintza, eta ohar hau uzteko atrebentzia izan zuten: "Eskerrik asko segurtasun faltagatik". Maiatzaren 7an berreskuratu zuten lana.



EDVARD MUNCH

Løten (Norvegia), 1863/12/12-Skøyen (id.), 1944/01/23

Edvard Munch margolari eta grabatzaile norvegiarra izan zen. Haren obrek, gehienbat larritasuna islatzen dutenek (*Garrasia*, 1893; *Ohearen eta erlojuaren arteko autoerretatua*, 1940-42;...), eragin handia izan zuten Alemaniako XX. mendeko Espresionismoan: aitzindari izan zen, beraz.

Gurasoak Christian Munch sendagile militarra eta Laura Cathrine izan zituen. Haurtzaroa ez zuen samurra izan, oso gaztea zelarik hil baitzitzaizkion ama eta arreba tuberkulosiak jota; aita, berriz, obsesionatuta bizi izan zen erlijioarekin, 1889an hil zen arte. Sufrimendu latz horien guztien ondoren, Edvardek nortasun arazotsu eta desorekatua garatu zuen; baina, berak aitortua, artean maisu izateko oinarria emango zion.

1879an, ingeniariitza ikasten hasi zen; baina, urte batzuk geroago, ikasketak utzita artean hasi zen. 1881ean, pare bat margolan saldu, eta lehen autorretratua pintatu zuen.

Estilo berezia erakutsi zuen, linearen espresioa indartuz eta formak minimizatu eta sinbolikoki erabiliz. Bere buruaz (bere arteaz, azken finean) honako hau esaten zuen: Leonardo da Vincik giza anatomia ikasi eta gorputzak diseinatzeko zituen bezalatsu, bera gizakien arimak diseinatzeko ahalegintzen zen. Horregatik, Munchen lanen gaiak beti dute zerikusia sentimendu eta giza zorigaiztoekin, eta beraren koadroak argi islatu dute hori guztia: bakardadea (*Melankolia*), bizi-larritasuna (*Garrasia*, seguruenik, obrarik garrantzitsuena), heriotza (*Bohemio baten heriotza*), erotismoa (*Maitaleak* eta *Musua*, adibidez)... Espresionismoaren aitzindari –aurpegi adierazkortasun erabatekoa, figuren jarrerak...– eta Norvegiar izan den margolaririk onena dela jotzen da.

